

INDUSTRIALIZAZIOA II. PRAKTIKA

GALDERAK

- 1. Nolakoa zen umeen bizitza langile klase-proletarioan?** Fabriketan egoera kaxkar eta esplotatuetan lan egitera behartuak zeuden familiaren sustenturako, lan zuzena egiten zutelarik eta guztiz langile sozializatu eran.
- 2. Nolakoa zen klase burges-kapitalistako umeen bizitza?** Ikasketetan murgilduak egoten ziren, lan banaketa soziala aditzera ematen da hala, izan ere, gizarteko kargu garrantzitsuak betetzen zituzten, lan ez zuzena izanik.
- 3. Nolakoa zen klase burges-kapitalistako umeen bizitza?** Dokumentalaren arabera, tabernan edatea, dantzatzea, abestea eta sexua zen langile klaseak zuen entretenimendua.
- 4. Nola bizi zen langile klaseko familia bat?** Kale estu eta zikinetan bizi ziren animaliekin batera, insalubritate handian. Oso kale zaindu gabeak ziren eta garbiketa zereginak (arropa garbitzea adb.) kalean egiten zuten emakumeek, baita beste zeregin batzuk ere (egurra moztea adb.). Seme-alaba ugariako familiek osatzen zituzten familiak eta etxeak txiki geratze ziren hainbeste pertsonentzat. Jatekoa ere ez zen ugaria (bideoan patata bakarra jaten dute bazkaritan) eta aurretik errezatu egiten zuten.
- 5. Zergatik errefusatu zituzten burgesek Daens-en ideiak? Zer suposatuko luke hauentzat Daens-ek aldarrikatutako hobekuntza laborala eta salarrialak?** Berez beren ideiak defendatzen zituen egunkari katoliko batean idatzi zuelako Daens-ek, langileak “beren gainera botatzen” zituelarik artikuluz. Gainera, hiria arriskutsu bilakatzea aurpegiatzen diote: lapurretak handitzea, beren emazteei biraoak botatzea... Merkatuan, prezio ez konpetitiboak izatea suposatuko luke, baita krisiaren ondorioz, fabrika ugari itxi behar izatea ere.
- 6. Zein ezberdintasun dago partidu katolikoaren buruaren (liberal moderatua) eta beste enpresaria (liberal progresista)-ren artean?** Batek ahalik eta gutxien ordaintzea proposatzen du fabrika mantentzeko, ia bizirauteko ere ez izanik langileek (fabrikak itxi ez gero, okerrago biziko direla argudiatuz). Liberal progresista, aldiz, kontra dago, langileen baldintza benetan kaxkarra izango litzatekeela ikusita.
- 7. Zein soluzio ezartzen diote krisiari liberal moderatuek?** Liberal moderatuek, emakumeak kontratatuz gero irabazi handiagoak izango litzatekeela botatzen du, behin pobrezia arazo ez dela ondorioztatuta. Hala 4 makinako, 3 emakume ezartzea proposatzen dute, teknika eskozesak baliatuz.

8. Nola erreazionatzen du liberal-progresistak liberal-moderatuen proposamenaren aurrean? Langileak kezkatzen direla diote liberal-progresistek, beren lan baldintzak hobetu nahi dituztela eta ez kaxakartu diote.

9. Zer egiten du partidu katolikoko buruak Daens sazerdotea isilarazteko? Bere kargua kenduko diola esanez mehatsatzen du. Gainera, sazerdotearen goi kargukoei (abadeari) bere ideiak demagogiaz beteak daudela informatzen dio eta hau isilarazteko eskatzen dio inbestigazioak has ez daitezen, kargutik botaz.

10. Nolakoak ziren garaiko langileen kondizio laboralak? Zein eskubide laboral zituzten? Zahartzen zirenean, langabezia geratzen ziren. Ezin ziren kexatu beren familiakoen lanpostua beharrezko zutelako familiaren mantenurako eta hauek arriskuan ez jartzeko. Gizonezkoak emakumezkoak baino garestiagoak zirenez, lehenago botatzen zituzten lanetik. Segurtasun laboral eskasak zituzten eta egoera oldarkorrek bizitzera behartuak zeuden lanpostua mantentzearren.

11. Zein zen burgesiaren erantzuna langileriaren greba eta manifestazioen aurrean? Garai hartan langileriak zein eskubide sindikal zituen? Langileriaren aurka egin zuten, jendarmea mobilizazioak geldiaraztera bidaliz, haien indarrarekin eta bortxarekin langileak zapalduz. Ez zuten eskubide sindikalik.

12. Orokorrean nola deitzen zen langileriaren bizitza eta haien eskubideak hobetzeko helburua zuen ideologia? Sozialismoa.

13. Liberal moderatuek eta kontserbadoreek sufragio zentsitarioa defenditzen zuten. Sistema horretan norka bozkatu zezakeen? Aberastasun kopuru jakin bat zutenek bozkatu zezaketen soilik, hori baino gutxiago zutenek ezin zuten. Modu horretan, langileriak (gehiengoak) ez bozkatea lortzen zuten, soilik burgesiak bozkatu ahal zuelarik.

14. Nola erreazionatzen du Elizako hierarkiak burgesia katolikoak presionatzen duenean? Daensi damutzeko esan zioten eta San Martin elizan predikatzea galarazten diote.

15. Burgesiak zein neurri hartu zituen langileriaren desnutrizioa gutxitzeko eta haien haserre handia txikiagotzeko? Lanera itzuli zirenei soilik ematen zieten jaten, greban zeudenei eta lanik egiten ez zutenei, berriz, ez.

16. Sozialisten eta demokraten manifestazio eta grebek lortu al zuten sufragio unibertsala? Bai.

17. Daensen kristautasun humanistaz gain hauteskundeetan beste zein bi indarrek babesten dute? Sozialistek eta liberalek.

18. Alderdi politiko burgesek zein estrategia erabiltzen zuten langileriaren babesa lortzeko? Jana eta edana ematea.

19. Elizaren hierarkiak zein babesten du humanismo kristaua ala burgesia katoliko kontserbadorea? Burgesia katoliko kontserbadorea.

20. Sufragio unibertsala jarri zenean burgesia dominatzaileak fraude elektorala egiten zuen, bere boterea mantentzeko. Zein baliabide erabiltzen zituen? Bere aldeko boto gehiago sartzen zituzten eta bestetik, aurkarien botoak baliogabetzen zituzten.

21. Zergatik dago Elizaren hierarkia Daensen aurka? Zein klase sozialetakoak dira horiek? Elizako goi-mailako kideak burgesiaren parte dira eta ez zaie langileriak indarra hartzerik komeni. Ondorioz, Daensen aurka daude, honek langileriaren alde egiten baitu.

22. Industrializatu ziren beste herrialdeen moduan Belgikak ere Europatik kanpo lurraldeak konkistatu zituen. Nola zuen izena Afrikan zuen kolonia nagusiak? Kongo.

23. Burges batzuek zein metodo extrajudizial erabiliko dituzte langileriaren eskubideen alde egiten duten edonor geldiarazteko? Bizkartzainak (“matones”) bidaltzea jendea (kasu honetan Daens) hilko dutela esanaz eta erasoak eginez bortxa erabiliz.

24. Mugimendu antisozialista eta antidemokrata sortuko da, nola du izena? Faxismoa.

ONDORIO KRITIKOA

- **Nola aldatu zuen mundua industrializazioak?**

Industrializazioa, sistema feudaletik kapitalismorako trantsizioko azkeneko faseetako bat dugu. Produkzio prozesuaren aldaketak eman ziren produkzio medioen aldaketa eman zenean, hau da, makinak zein fabrikak hirietan ezarri zirenean. Honek, produktuen produkzioa handitzea eta azkartzea ekarri zuen eta merkatua beste dimentsio batzuetara garraiatuz. Hala, fabrikari lana egingo zuten langile asko hirietara mugitu ziren, aurreko lan baldintzetan izan zezaketen autonomia apurra lapurtuz.

Langileen lan egiteko erari dagokionean, lan prozesu indibidual edo kooperazio sinpleko egiturari lan egitetik, kooperazio konplexuko lan prozesuari lan egitera pasa ziren, lan banaketa teknikoaren ondorio zena. Beraz, orain arte langileak bere lan medioekin zuen estutasuna galdu, eta honen gaitasun pertsonalak baztertua, lan medioak izango zuen zentralitatea objektutik produkturako eraldaketan, gizartean erreproduzitu ziren harremanetan eragin zuzena izanik.